bidez halaxe agintzen baitigu. Ondorioz, diru-laguntza handia eman dugu halako kirolak lantzen eta bultzatzen. Planekin loturiko ekintza horiek aurrerantzean ere egingo dira, planifikazioaren arabera betiere, beharrezkoa izango dutelako orain arteko laguntza aurrerantzean ere, benetan gauzatuko badira.

*14/1998, del Deporte del País Vasco, a través del desarrollo de sus planes estratégicos y la concesión de ayudas económicas al desarrollo de los mismos. Dichas actuaciones deberán ser evaluadas y se seguirán realizando, en concordancia con lo planificado, continuarán necesitando el apoyo económico imprescindible para su ejecución.*

8. KIROL-EREDUAREN ETA KIROLAREN EUSKAL SISTEMAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA ETA INFORMAZIOA.

2003-2007 Kirolaren Euskal Planaren ebaluazioa egin da.

*8. INFORMACIÓN, SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL MODELO DEPORTIVO Y DEL SISTEMA VASCO DEL DEPORTE.*

*Se ha realizado una labor de evaluación del Plan Vasco del Deporte 2003-2007.*

| **KOSTU / *COSTE*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA *IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak<br>*1 - Gastos de Personal* | 1.171 | 99% |
| Funtzionamendu Gastuak<br>*2 - Gastos de funcionamiento* | 1.565 | 93% |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak<br>*4 - Transf. y subv. para gastos corrientes* | 7.261 | 100% |
| Inbertsio Errealak<br>*6 - Inversiones reales* | 553 | 98% |
| Kapital Eragiketetako Transf. eta Dirulaguntzak<br>*7 - Transf. y subv. Con destino a operaciones de capital* | 2.000 | 99% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA *IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk<br>*3 - Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público* | 57 | 171% |

**PROGRAMA**
4513 KULTURAREN SUSTAPENA

**ARDURADUNA**
10 KULTURA
KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILBURUORDEA

HELBURUA

1. EUSKAL KULTURAREN SISTEMA ERAIKITZEA, LURRALDE ARTEKO KULTURA SAREA OSATUZ.
2. INFORMAZIO ZERBITZU BAT FINKATZEA, EAE-REN KULTUR EREMUAREN ESPARRUAN.
3. MUSIKA ETA INDUSTRIA DISKOGRAFIKOAREN SEKTOREA INDARTZEA ETA SUSTATZEA.
4. DANTZAREN SEKTOREA INDARTZEA ETA SUSTATZEA.
5. IKUS-ENTZUNEZKOEN SEKTOREA INDARTZEA ETA SUSTATZEA.
6. ANTZERKIAREN SEKTOREA INDARTZEA ETA SUSTATZEA.
7. ARTE PLASTIKO ETA IKUSIZKOEN SEKTOREA INDARTZEA ETA SUSTATZEA.
8. LITERATUR EKOIZPENA INDARTZEA ETA SUSTATZEA.
9. EUSKADIKO KULTUR LANAREN GAINEKO ERAKUSKETA BULTZATZEA, BAI ESTATUAN BAI NAZIOARTEAN.

BETETZE MAILA

1). Kulturaren Euskal Sistemaren eraikitzea Kulturaren Euskal Planaren garapenetik bertatik dator. 2009an zehar 12 lantalde sektorialek proiektuak amaitzen jarraitu dute ekintza-plan sektorialen testuinguruan, Kultura Ondare, Arte eta Kultur Industrien eremuetan. Kulturaren Euskal Kontseilua eta bere Erakunde-arteko Batzordeak “Kulturaren Euskal Plana 2004-2008” planaren balantzea eta ebaluazioa egiteko bi bilera egin dituzte 2009ko lehen hiruhilabetekoan. 2009ko bigarren seihilabetekoan Kulturaren Euskal Planaren ildoak aztertu dira 2010-2012 proiekzioari begira.

Arte eta Kultur Industrien Euskal Institutuaren Lege aurreproiektuaren ildoa berrikuste aldian dago.

Bestalde, arte eta kultura industrien sektoreetako erreferentziazko elkarteekin hitzarmen estrategikoen garapenerako lerroa era egokian garatu da 2009an.

2). Kulturaren Euskal Behatokiak, 2006an martxan jarri zenean funtzioak betetzeko oinarri kontzeptualak eta operatiboak finkatzea izan da Kultura Behatokiaren lan nagusia: euskal kulturaren informazio-sistema eratzea, harremanetan eta lankidetzan oinarritutako planteamendutik abiatuta.

2009an oinarrizko informazioa sortu eta aztertu; beste iturrietatik jasotako informazioa tratatu eta ikerketa kualitatiboak konbinatu dira.

***PROGRAMA***
*4513 PROMOCIÓN DE LA CULTURA*

***RESPONSABLE***
*10 CULTURA*
*VICECONSEJERO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES*

*OBJETIVO*

*1. CONSTRUIR EL SISTEMA VASCO DE CULTURA CONFORMANDO UNA RED CULTURAL INTERTERRITORIAL.*
*2. ESTABLECER UN SERVICIO DE INORMACIÓN SOBRE EL ÁMBITO CULTURAL DE LA CAE.*
*3. FORTALECER Y PROMOVER EL SECTOR DE LA MÚSICA Y LA INDUSTRIA DISCOGRÁFICA.*
*4. FORTALECER Y PROMOVER EL SECTOR DE LA DANZA.*
*5. FORTALECER Y PROMOVER EL SECTOR AUDIOVISUAL.*
*6. FORTALECER Y PROMOVER EL SECTOR DEL TEATRO.*
*7. FORTALECER Y PROMOVER EL SECTOR DE LAS ARTES PLÁSTICAS Y VISUALES.*
*8. FORTALECER Y PROMOVER LA PRODUCCIÓN LITERARIA.*
*9. IMPULSAR LA MUESTRA DEL TRABAJO CULTURAL DE EUSKADI TANTO ESTATAL COMO INTERNACIONALMENTE.*

*GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1). La construcción del Sistema Vasco de la Cultura se aborda desde el desarrollo del propio Plan Vasco de la Cultura. Durante el ejercicio 2009 los 12 grupos de trabajo sectoriales han ido cerrando los proyectos referentes a los planes operativos sectoriales en los ámbitos del Patrimonio, las Artes y las Industrias Culturales. El Consejo Vasco de la Cultura y su Comisión interinstitucional han realizado dos reuniones de balance y evaluación del “Plan Vasco de la Cultura 2004-2008” durante los tres primeros meses de 2009. Durante el segundo semestre del 2009 se han revisado las líneas del Plan Vasco de la Cultura en su proyección 2010-2102.*

*La línea del anteproyecto de Ley del Instituto Vasco de las Artes e Industrias Culturales está en fase de revisión.*

*La línea de convenios estratégicos con asociaciones culturales de referencia en los sectores de las artes y las industrias culturales se sigue consolidando en el 2009.*

*2). La actividad principal del Observatorio Vasco de la Cultura, desde su puesta en marcha en 2006, ha consistido en sentar las bases conceptuales y operativas que hicieran posible el cumplimiento de las funciones para las que fue gestado: construir un sistema de información de la cultura vasca desde un planteamiento relacional y cooperativo.*

*Durante 2009 se han combinado la generación de información estadística de base y su posterior análisis; el tratamiento de información de fuentes secundarias y los*

2009ko balantzea egiteko orduan ekintza planaren oinarri diren bi ardatz nagusiak kontuan hartuz emaitza nagusiak zehaztuko ditugu ondoren:

Informazio sistemak: geuk aurrera eramandako estatistika eragiketak; beste iturrietako informazioa eta praktika egokiak eta teknika kualitatiboko ikerketak:

Estatistika eragiketak:

Arte eta Kultura Industrien eragiketa. Arteei dagozkien 4 txosten; Kultura Industriei dagozkien 2 txosten eta zeharkako txosten 1.

Artxiboen eragiketa: diseinu teknikoa eta landa lana martxan jarri.

Finantzaketa eta gastu publikoa kulturan: Diseinu teknikoa eta landa lana martxan jarri.

Azterketa estatistikoak:

"Kulturako enplegu eta lanbideak". Informazio iturriak hautatu eta aztertu (INE, EUSTAT; Eusko Jaurlaritzako Enplegu Saila).

"Sorkuntzari laguntzeko politikak". Txostena, txosten exekutiboa eta lanerako litezkeen eskenatokien katalogoa.

Hausnarketa eta kontrasterako guneak:

Kulturan Finantzaketa eta Gastu Publikorako lantaldea.

Kultura Behatokiekin lan sarea.

Erakunde zein sektoreekin komunikazioa eta harremanak:

Argitalpenak: "Kulturkaria" buletin elektronikoaren 3 ale; "Kultura 08-09" Kulturaren Euskal Behatokiaren urteko txostenenaren argitalpena; 2009ko memoria eta 2010eko ekintza plana.

Komunikaziorako tresnak: Kulturaren Euskal Behatokiaren webgunea; Behatokiak sorturiko estatistiken zabalkunde eta kontsultarako aplikazioa (PC-Axis); lan talderako zein nazioarteko behatokiekin sare lana bideratzeko extraneta.

Nazioarteko lan jardunaldiak: Kultura Behatokiekin III Lan Jardunaldiak antolatu.

Lan bilerak: sektoreetako 8 elkarte eta sektore lantaldeekin. Arte Eszeniko, ikusizko arteen, diskoetxe eta ikus-entzunezko ekoizleen estatistiken emaitzak kontrastatzeko.

Kultura teknikari eta arduradunekin lantaldea. Eusko Jaurlaritza (Kultura-Ogasuna), 3 Foru Aldundi eta EAEko udaletako 17 lagunez osatua. Baita ere 3 lurralde historikoetan egindako aurkezpenak 46 udaletako ordezkarien bertaratzearekin.

Eskaera eta kontsultei erantzun: berez berezi emandako aholkularitza dantza sektoreko eskariari. Halaber, informazio data basea eskaera egin duten ikerlarien esku jarri da.

3). Musika eta Industria diskografikoaren sektorean, musika-jarduera profesionalak laguntzeko deialdian, orotara 64 proiektu lagundu dira, modalitate hauetan

*estudios cualitativos.*

*Para realizar el balance de 2009 describimos a continuación los principales resultados, tomando como referencia los dos ejes sobre los que se sustenta el programa de actuación:*

*Sistemas de información: operaciones estadísticas propias y fuentes secundarias; estudios de análisis de buenas prácticas y técnicas cualitativas:*

*Operaciones estadísticas:*

*Estadística de las Artes e Industrias Culturales. 4 informes de Artes; 2 de Industrias y 1 transversal.*

*Estadística de Archivos: diseño técnico y lanzamiento del trabajo de campo.*

*Estadística de Financiación y Gasto Público en Cultura: diseño técnico y lanzamiento del trabajo de campo de la Operación.*

*Estudios estadísticos:*

*"Los empleos y profesiones de la cultura". Selección y análisis de fuentes de información (INE, EUSTAT, Departamento de Empleo del Gobierno Vasco).*

*"Políticas de apoyo a la creación". 1 Informe, 1 informe ejecutivo y catálogo de posibles escenarios de trabajo.*

*Espacios de reflexión y contraste:*

*Grupo de trabajo sobre gasto público en cultura.*

*Red de trabajo con otros observatorios de cultura.*

*Comunicación y relaciones institucionales y sectoriales:*

*Publicaciones: Publicación de tres nuevos números del boletín electrónico "Kulturkaria"; anuario del Observatorio "Kultura 08-09"; Memoria 2009 y Plan de actuación 2010.*

*Herramientas para la comunicación: Web del Observatorio Vasco de la Cultura; Consulta dinámica de datos de la estadística generada (PC-Axis); Extranet del Observatorio para el equipo de trabajo y para la red Internacional.*

*Jornadas Internacionales: organización de las III Jornadas Internacionales con otros observatorios de Cultura.*

*Reuniones de trabajo con 8 asociaciones y grupos sectoriales de artes escénicas, artes visuales, discográficas y productoras audiovisuales para el contraste de los resultados de las operaciones estadísticas.*

*Grupo de trabajo con 17 responsables y técnicos de Gobierno Vasco (Cultura-Hacienda), 3 diputaciones y municipios de la CAE, así como presentaciones en los territorios históricos con asistencia de técnicos de 46 municipios.*

*Atención a consultas y solicitudes: 1 servicio de asesoría ad hoc del sector de la danza. Asimismo se ha puesto el banco informativo a disposición de los investigadores que así lo han solicitado.*

*3). En el sector de la Música y la Industria discográfica, a través de la convocatoria de ayudas para actividades musicales profesionales se han apoyado 64 proyectos,*

banaturik: musika-sorkuntzako proiektuetarako 10 laguntza; partitura edizio grafikoko proiektuetarako 6 laguntza; musika lanen ekoizpenerako 19 laguntza; musika bira profesionaletarako 29 laguntza; musika zabaltzeko enpresa-proiektuetarako 9 laguntza, eta profesionalak musika azoka eta merkatuetara joateko 5 laguntza.

*repartidos en las siguientes modalidades: 10 proyectos de creación musical; 6 para proyectos de edición impresa de partituras; 19 para producción de obras musicales, 29 para giras musicales profesionales; 9 para proyectos empresariales de difusión musical y 5 para la asistencia de profesionales a ferias y mercados musicales.*

'Euskadiko Soinuak-Sonidos de Euskadi-Basque Music' programaren helburuak musika herrikoi profesionala eta enpresa-jarduera laguntzea dira, sektore lankidetza proiektuen bitartez. Bada, programa horren markoan ekintza desberdinak bultzatu dira, hala nola nazioarteko feria profesional desberdinetan stand-ak, aurkezpenak eta kontzertuak antolatzea; trukaketa musikalak eta profesionalak eta musika zirkuituak sustatzea,

*En el marco del programa 'Euskadiko Soinuak-Sonidos de Euskadi-Basque Music', cuyos objetivos son el apoyo a la música popular profesional y al tejido empresarial, mediante proyectos de colaboración sectorial, se han desarrollado acciones diversas, tales como stands, presentaciones y conciertos en ferias profesionales internacionales, intercambios musicales y profesionales y apoyo a circuitos musicales.*

Halaber, programazioari dagokionez, elkarte eta entitate desberdinek bultzatutako ekintzak ere diruz lagundu dira.

*Asimismo, en el ámbito de la programación, se han subvencionado distintas actividades promovidas por asociaciones y entidades diversas.*

Euskal Herriko Gazte Orkestrak (EGO) bere jardunarekin jarraitu zuen, bi denboralditan banatua, udakoa eta negukoa. Halaber, Donostiako Musika Hamabostaldiaren eta Operaren Lagunen Bilboko Elkartearen urteko programen garapena diruz laguntzen jarraitu da.

*La Joven Orquesta de Euskal Herria (EGO) continuó su actividad habitual, dividida en dos temporadas, la de verano y la de invierno. Igualmente, se continuó subvencionando el desarrollo de los programas anuales de la Quincena Musical de San Sebastián y de la Asociación Bilbaína de Amigos de la Ópera.*

Urte hasieran, Kulturaren Euskal Planaren markoan, musika sektorearen garapenerako Ekintza plan bat zehaztu zen hurrengo bi urteotarako. Maiatzetik aurrera Plan hori Sailaren ekipo arduradun berriaren aldetik berraztertzeko egoeran gelditu zen. Urte honetan bertan ere musika sektoreko elkarteei laguntza politikarekin jarraitu da.

*En el marco del Plan Vasco de la Cultura, a primeros de año se definió el un Plan operativo para el sector durante los próximos dos años. A partir de mayo dicho Plan ha quedado pendiente de revisión por parte del nuevo equipo responsable del Departamento. Durante este mismo año además, se ha continuado con la política de apoyo a las asociaciones del sector musical.*

4). Dantzaren sektorea bere atal ezberdinetan bultzatzen jarraitu dugu, ekimen desberdinen bitartez, bai dirulaguntzei bai zabalkundeari dagokienez.

*4). El sector de la Danza continúa siendo apoyado a través de distintas iniciativas, tanto subvencionales como de difusión.*

Dantza sustatzeko dirulaguntza deialdiari dagokionez, orotara, 33 proiektu lagundu dira, modalitate hauetan banatuta: koreografia laburrezko 10 sorkuntza lan; konpainiak sendotzeko 2 proiektu; ekoizpen profesionaleko 9 proiektu; biretako 3 proiektu; dantza profesionalentzako formakuntza jarduerak antolatzeko 7 proiektu eta jarduera profesionala laguntzeko 2 proiektu lagundu dira.

*En la convocatoria de ayudas a la Danza han sido subvencionados un total de 33 proyectos, repartidos en las siguientes modalidades: 10 proyectos de creación coreográfica de corta duración; 2 proyectos para la consolidación de compañías, 9 proyectos de producción profesional; 3 proyectos de gira; 7 ayudas para la organización de actividades de formación permanente de profesionales de la danza y 2 proyectos de apoyo a la actividad profesional.*

Zabalkunde jarduerei dagokienez, Dantza garaikidearen Zirkuituaren bosgarren edizioa aipatu behar da. Horren bitartez, 59 emanaldi programatu ziren Erkidego Autonomoko 10 herritako 16 antzoki edo espaziotan.

*En cuanto a actividades de Difusión hay que destacar la celebración de la quinta edición del Circuito de danza contemporánea, en el que se programaron 59 representaciones en 16 teatros o espacios de 14 localidades de la Comunidad Autónoma.*

Arlo Profesionalean ere, Dantzarako VIII Plataforma antolatu zen non 2008ko laguntza-deialdian diruz lagundutako ekoizpen batzuk programatu baitziren.

*En el ámbito profesional se organizó además la VIII Plataforma para la Danza, en la que se mostraron obras de producción de danza subvencionadas en la convocatoria de ayudas de 2008.*

Halaber, Dantzan Bilaka programaren hirugarren edizioa gauzatu zen. Ekintza honek sorkuntza, ikerketa eta zabalkunde alorretan eragiten du, aurreko urtean diruz lagundutako koreografo gazteen lana laguntzen delarik, baita publikoari ezagutzera eman ere.

*Se celebró también la tercera edición del programa Dantzan Bilaka, actividad que incide en los ámbitos de la creación, la investigación y la difusión de la danza contemporánea, apoyando y dando a conocer los trabajos de creación coreográfica subvencionados en la convocatoria de ayudas del año anterior.*

Urte hasieran, Kulturaren Euskal Planaren markoan, 2008an onarturiko Dantza sektorearentzako Ekintza

*En el marco del Plan Vasco de la Cultura, a primeros de año se comenzó a trabajar en algunas de las acciones*

planaren ekintza batzuetan lanean hasi zen. Maiatzetik aurrera Plan hori Sailaren ekipo arduradun berriaren aldetik berraztertzeko egoeran gelditu zen. Urte honetan bertan ere dantza sektoreko elkarteei laguntza politikarekin jarraitu da,

*señaladas en el Plan operativo de la Danza en 2008. A partir de mayo dicho Plan ha quedado pendiente de revisión por parte del nuevo equipo responsable del Departamento, si bien algunas acciones de dicho plan continúan desarrollándose. Durante este mismo año además, se ha continuado con la política de apoyo a las asociaciones del sector de la Danza.*

5). Ikus-entzunezkoen sektorean, alde batetik, nazioarteko ekoizpen zinematografiko askoren euskaratzea bultzatzen jarraitu dugu, bai zinema aretoetan bai etxeko euskarrietan. 2009an programa bat (bi partidekin) adostu da Euskadiko Filmategiarekin ikus-entzunezko ekoizpenak euskarara bikoizteko. Horrela, 2009an Euskadiko Filmategiak kudeatutako programaren bidez 4 luzemetraia eta 21 film DVD formatuan bikoiztu dira euskarara.

*5). En el sector Audiovisual, por una parte, se ha continuado favoreciendo la incorporación de los doblajes en euskera a muchas de las producciones cinematográficas internacionales, tanto en su exhibición en salas comerciales como en soportes domésticos. En 2009 se ha acordado un programa (con dos partidas) con la Filmoteca Vasca para el doblaje de producciones audiovisuales al euskera. De esta manera, en 2009 se han doblado al euskera en formato DVD 4 largometrajes y 21 películas por medio del programa gestionado por la Filmoteca Vasca.*

Honetaz gainera, euskaraz eginiko ikus-entzunezko industriaren ekoizpena, banaketa eta promozioa sustatzeko lankidetza hitzarmen bat sinatu da Kultura Ministerioarekin.

*También se ha suscrito un convenio de colaboración con el Ministerio de Cultura para fomentar la producción, distribución y promoción de la industria cinematográfica y audiovisual en euskera.*

Film luzeen ekoizpena eta horien aurretiko faseena ere jarraitu dugu bultzatzen: lehenik eta behin, gidoi zinematografikoak sortzea bultzatu dugu; bigarrenik, hainbat proiekturen aurre-ekoizpena diruz lagundu, eta azkenik, garrantzitsuena, film luzeen ekoizpena bera diruz lagundu (horretan atal bereiziak ezarri dira: fikziozko eta animazioko film luzeak, sorkuntza dokumentalak eta film laburrak. Honako hauek dira lagundutako proiektuak: Gidoiak, 10 proiektu; Garapena (aurre-ekoizpena), 16 proiektu; Fikziozko filmen ekoizpena, 9 proiektu; Animaziozko filmen ekoizpena, 3 proiektu; Dokumentalen ekoizpena, 7 proiektu; Laburmetraiak, 15 proiektu.

*Se ha continuado ayudando también la producción de largometrajes y sus fases previas: en primer lugar, ayudando a la creación de nuevos guiones cinematográficos, posteriormente subvencionando el desarrollo de varios proyectos en fase de preproducción y por último y sobre todo, ayudando económicamente la producción de largometrajes propiamente dicha, en la que se han mantenido tramos diferenciados de ayudas al largometraje de ficción, largometrajes de animación, documentales de creación y cortometrajes. Se han subvencionado los siguientes proyectos: Guiones, 10 proyectos; Desarrollo (pre-producción), 16 proyectos; Producción de largometrajes de ficción, 9 proyectos; Producción de largometrajes de animación, 3 proyectos; Producción de documentales, 7 proyectos; Cortometrajes, 15 proyectos.*

Horretaz gainera, martxan jarri da Ikus-entzunezko produkzioak finantzatzeko Programa: interes gabeko mailegu itzulgarriak eman zaizkie zenbait proiekturi, eta kontratuak finantzatzeko maileguak beste batzuei.

*Además, se ha realizado la convocatoria del programa de Financiación de la producción audiovisual, mediante el cual se han concedido préstamos reintegrables sin interés y préstamos para la financiación de contratos.*

Bestalde, fikziozko eta animaziozko film luzeen eta sorkuntzazko dokumentalen promozioa eta publizitatea babesten jarraitu da, eta halaber, euskarri berrietan ikus-entzunezko edukien sorkuntza eta ekoizpenerako dirulaguntzak argitaratu dira. Aurrenekoan 4 film lagundu dira eta bigarrenean 7 proiektu.

*Por otro lado, se ha continuado apoyando la promoción y publicidad de largometrajes de ficción y animación y documentales de creación, y así mismo, se han convocado subvenciones para la creación y producción de contenidos audiovisuales en nuevos soportes. En el primero se han subvencionado 4 largometrajes y en el segundo, 7 proyectos.*

Euskadiko ikus-entzunezko sektorea osatzen duten ikus-entzunezko obrak eta enpresak sustatzeko ekintzak bultzatzeko zenbait babes-neurrirekin jarraitu da “Niniak” programaren bitartez. Agindu honen bidez nazioarteko ikus-entzunezkoen merkatuetan Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizle eta enpresa banatzaile independenteen presentzia babesten da.

*Se ha seguido con las medidas de apoyo dirigidas a impulsar acciones de promoción de las obras audiovisuales y de las empresas que integran el sector audiovisual de Euskadi mediante el programa “Niniak”, que tiene como finalidad apoyar la presencia de las productoras y distribuidoras independientes en eventos audiovisuales de carácter internacional.*

Erakunde batzuen urteko programak diruz laguntzen jarraitu da: Donostiako Nazioarteko Zinemaldiarena, Euskadiko Filmategia Fundazioarena, KIMUAK programaren kudeaketa barne, honen helburua ekoiztu diren film laburren barne eta kanpoko zabalkundea bultzatzea izanik, baita Antena Media Euskal Herria

*Se han continuado subvencionando los programas anuales del Festival Internacional de Cine de San Sebastián, de la Fundación Filmoteca Vasca, incluyendo la gestión del programa KIMUAK, que favorece la difusión interior y exterior de los cortometrajes producidos, así como de la oficina Antena Media Euskal Herria, del*

bulegoarena ere, Europako Batzordeko Media programarena azken hau.

Urte honetan bertan gainera, bi lankidetza hitzarmen sinatu dira, bata sektoreko elkarte adierazgarri batekin, IBAIA, Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea, eta bigarrena, Euskadiko Ikus-entzunezko Clusterrarekin (Eiken).

6). Antzerkiaren sektorea indartzea eta sustatzea antzerki jardueraren balioaren kate osoaren garapenetik dator: prestakuntza, sorkuntza, produkzioa eta zabalkundea.

Antzerki profesionalen prestakuntzari ematen zaion bultzada, Antzerki Eskolen urteko programak babesteko emandako diru-laguntzen bidez gauzatu da, bai eta horien osagarri moduan antolatu dituzten ikastaro jakinak babesteko emandakoen bidez ere. Beti ere egunen batean hori guzti hori hezkuntza sistema formalean sartuko delakoaren esperoan. Lehen kasuan 6 antzerki eskola lagundu dira eta bigarrengoan 3 ikastaro, 170.177 € banatu direlarik.

Sorkuntzaren arloan, alde batetik, antzerki-testu berriak diruz laguntzen jarraitu da, geroko geroan antzerki ekoizpenen baten oinarri izan daitezkeelakoan. 3 Euskarazko antzerki-testuak eta gaztelerazkoak beste hainbeste lagundu dira, 48.000 eurorekin.

Antzerki konpainien ekoizpen garrantzitsuenak bultzatzen jarraitu dugu, sektore ezberdinen beharrei eta interesei erantzun nahian. Horregatik, arlo honetan, alde batetik konpainia gazteen ekoizpenak babestu ditugu, beste aldetik orokorki konpaini guztienak, eta azkenik bi urtetan garatzekoak diren antzerki-egitarauak bultzatzeko laguntzak bideratu ditugu, dagoeneko sendoturik dauden antzerki-enpresak laguntzeko asmoz. Horrela, 13 ekoizpen lagundu dira, hauetatik 3 konpaini sortu berrienak, eta bi urtetarako 4 proiektu. Denera 920.000 € banatu dira.

Azkenik, zabalkundearen arloan, Autonomia Erkidegotik kanpoko antzerki-birak egiteko diru-laguntzak eman ditugu, eta bestalde, batez ere Bartzelonan eta Madrilen egiten diren antzerki denboraldien promoziorako laguntzak ere eman ditugu. Guztira 28 antzerki bira (2 Espainian, 12 Europan eta 14 beste lurraldeetan, Amerikan bereziki) eta bi denboraldi Madrilen eta Bartzelonan bultzatu dira.

Orobat, Euskal Antzokien Sarearen lanak aurrera egin du, bere bulego teknikoaren zereginak eta bertan sarturik dauden antzoki eta erakundeen lana errazteko eta hiritarrei informazioa eskaintzeko, Informazio-zerbitzu bat sendotuz. Sarearen barruan, dantza zirkuitua ere egin dugu, arte eszenikoen programazio osoaren barruan dantzaren programazio iraunkorra bultzatu asmoz.

7). Arte Plastiko eta ikusizkoen arloan diru-laguntzen deialdiaren bidez hainbat jarduera bultzatzen jarraitu da, bai Ekoizpenaren Arloan arte-lanak egiten lagunduz, bai Zabalkundearen Arloan, arte garaikideko gertakizunak antolatzea edota haietan parte hartzea lagunduz (erakusketak, egoiliar gisako proiektuak, batzarrak,

*programa Media de la Comisión Europea.*

*Durante este mismo año además se han firmado dos convenios de colaboración: el primero, con una asociación representativa del sector, IBAIA, Asociación de Productoras Audiovisuales Independientes del País Vasco, y el segundo, con Eiken, el cluster audiovisual de Euskadi.*

*6). El fortalecimiento y promoción del sector teatral se aborda desde la intervención en toda la cadena de valor de la actividad teatral: formación, creación, producción y difusión.*

*El apoyo a la formación de profesionales del teatro se ha materializado en las ayudas económicas a los programas anuales de las Escuelas de Teatro, así como a los cursos puntuales que han organizado complementando los anteriores, siempre en espera de que todo ello sea integrado en su día en el sistema educativo formal. En el primer caso se han apoyado 6 escuelas de teatro y en el segundo tres cursos específicos por una cantidad total de 170.177 €.*

*En el área de la creación, se ha seguido subvencionando la realización de nuevos textos teatrales susceptibles de convertirse en producciones en su día. Se ha apoyado la realización de 6 textos teatrales, 3 en euskera y otros tantos en castellano por una cantidad total de 48.000 €.*

*Se ha continuado con el apoyo a la producción teatral profesional intentando responder a las necesidades e intereses de los diferentes sectores teatrales. Es por ello que en este campo se establecen unas ayudas especialmente dirigidas a las producciones de compañías jóvenes, otras dirigidas a todas las compañías en general y las últimas, dirigidas a los proyectos teatrales destinados a desarrollarse durante dos años, con el ánimo de ayudar a las empresas de teatro más consolidadas. Se han apoyado 13 producciones, de las cuales 3 corresponden a compañías de nueva creación y 4 a proyectos bianuales, por una cantidad total de 920.000 €.*

*Por último, en el área de la difusión, se han apoyado económicamente las giras teatrales de las compañías vascas fuera de la Comunidad Autónoma y la promoción de las temporadas teatrales realizadas sobre todo en Barcelona y Madrid. Han sido apoyadas un total de 28 giras teatrales (2 en España, 12 en Europa y 14 en el resto del mundo, especialmente en América) y dos temporadas teatrales en Madrid y Barcelona.*

*Asimismo, ha continuado su actividad la Red Vasca de Teatros SAREA, impulsando el trabajo de su Oficina Técnica y consolidando su Sistema de Información para facilitar el trabajo de los teatros e Instituciones insertos en la red y para ofrecer información a la ciudadanía. En este mismo marco de Sarea se ha llevado a cabo el circuito de danza para potenciar la programación estable de danza dentro de la programación general de las artes escénicas.*

*7). En el campo de las artes plásticas y visuales se han continuado impulsando mediante la convocatoria de ayudas acciones tanto en el Área de Producción, apoyando la realización de proyectos artísticos, como en el Área de Difusión, apoyando la organización o participación de agentes del sector en eventos y*

lantegiak…), eta katalogoak eta argitalpenak editatzea. Azkenik, bigarren urtez Formakuntza arloko dirulaguntzekin jarraitu da. Laguntzok sektoreko profesionalen prestakuntza hobetzeari begira daude.

*manifestaciones de arte contemporáneos (exposiciones, residencias, encuentros, talleres…) y la edición de catálogos y publicaciones. Asimismo, por segundo año se ha continuado con la línea de ayudas dirigidas al perfeccionamiento de los profesionales del sector.*

Halaber, Gure Artea Sari bienalaren XXI edizioarekin jarraitu da. 2. urte honetan Vitoria-Gasteizko Artium Museoan 2008an saritutako hiru artisten lanekin erakusketa bat antolatu da.

*En el segundo año de los Premios bienales Gure Artea XXI se ha organizado una exposición con obra de los tres artistas premiados en la edición 2008 en el Museo Artium de Vitoria-Gasteiz.*

8). Liburuaren eta Literaturaren sektorean, 26 argitaletxek euskaraz argitaraturiko 333 liburuetarako dirulaguntzak jaso dituzte, kalitatezko euskal literatura ekoizpena eta euskal argitaletxeen sektorearen mantentzea bultzatuz.

*8). En el sector del Libro y la Literatura, se han concedido ayudas a 26 editoriales para la edición de 333 obras de carácter literario escritas en euskera, contribuyendo así al mantenimiento del sector editorial vasco y a la existencia de una producción literaria de calidad.*

Euskadiko Autonomia Erkidegoaren barruan liburuak sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak laguntzen jarraitu dugu. Horretarako, 5 dirulaguntza eman dugu, literatur elkartzeak edo zabalkundekoak antolatzeko, baita sustapen eta zabalkunderako bestelako jarduerak ere, eta albistegiak eta liburuxkak editatzeko.

*Se ha continuado con el apoyo a las actividades de promoción y difusión del libro dentro de la Comunidad Autónoma, por medio de 5 subvenciones a la organización de encuentros literarios o divulgativos y de otras actividades de promoción y difusión.*

Liburuaren Ganbararekin sinatutako hitzarmenaren bitartez, 22 liburu azoka antolatu dira Euskadiko Erkidego Autonomoko zenbait udalerritan.

*Mediante convenio con la Cámara del Libro se ha posibilitado la organización de 22 ferias del libro en diferentes municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

Gainera, Euskadi Literatura Sarien 2009. urteko edizioaren deialdia egin da, ohiko lau modalitateetan (euskarazko literatura, gaztelaniazko literatura, euskarazko haur eta gazteentzako literatura, eta euskararako literatura itzulpena). Gainera modalitate berri bat sortu da, ilustrazioa hain zuzen ere. Hautagaiak aukeratu, sariak ebatzi, eta sariok Lehendakariak eta Kultura sailburuak emateko ekitaldia antolatu da.

*Además, se ha convocado la edición 2009 de los Premios Euskadi de Literatura en sus cuatro modalidades anteriores: literatura en euskera, literatura en castellano, literatura infantil y juvenil en euskera, y traducción literaria al euskera, creándose una nueva modalidad, la de la ilustración. Se determinaron los finalistas, se resolvieron los premios y se organizó el acto de entrega de los mismos por parte del Lehendakari y la consejera de cultura.*

9). Euskadiko kultur lanaren zabalkundeak, bai estatuan bai nazioartean, aurrera egin du 2009an zehar:

*9). La labor de difusión, tanto estatal como internacional, del trabajo cultural de Euskadi ha continuado a lo largo de 2009:*

Euskadin gertatu diren estatuko nahiz nazioarte mailako 51 Jaialdi, ziklo, lehiaketa eta sariketa diruz lagundu dira guztira, Ikus-entzunezko, Antzerki, Dantza eta Musikaren sektoreetan.

*Se ha subvencionado un total de 51 Festivales, ciclos, concursos y certámenes de los sectores de Audiovisuales, Teatro, Danza y Música, de carácter estatal e internacional, desarrollados en Euskadi.*

Musikaren sektorean, “Euskadiko Soinuak” Programak jarraitu du sektoreko enpresek Estatuko eta nazioarteko musika azoketan parte hartzen laguntzen: euskal musika ekoizpenak kanpoan merkaturatzea eta zabaltzea sustatu da hainbat azokatara joanda: Frantziako Canneseko MIDEM disko-azoka, POPKOMM, Berlin-en, eta WOMEX, munduko musiken azoka.

*En el sector de la Música, el Programa “Euskadiko Soinuak” ha continuado facilitando a las empresas del sector su presencia en ferias musicales estatales e internacionales: se apoyó la difusión y la comercialización exterior de las producciones musicales vascas, acudiendo a la feria discográfica MIDEM, en Cannes, Francia, POPKOMM, en Berlín, y a la feria de músicas del mundo WOMEX.*

Dantzaren sektorean, Donostiako Antzerki Feriaren barruan, Dantzarako VIII. Plataforma antolatu zen, bertan 2008ko deialdian diruz lagundutako zenbait dantza produkzio aurkeztu ziren.

*En el sector de la Danza, se celebró la VIII Plataforma para la danza, dentro de la Feria de Teatro de San Sebastián. En ella fueron mostradas algunas de las producciones de danza subvencionadas en 2008.*

Ikus-entzunezkoen sektorean, ahalegin berezia egin dugu zabalkundearen eta nazioarteko merkaturatzearen premia larria duten euskal zinemagintzaren bi genero sustatzeko: animazioa eta dokumentala. Horretarako, NINIAK programaren bitartez zenbait azokatan hainbat produkzio-etxeren parte hartzea bultzatu dugu.

*En el sector Audiovisual, se ha realizado un esfuerzo especial para apoyar la difusión y la comercialización internacional de la producción cinematográfica vasca en dos géneros especialmente necesitados de ella, la animación y el documental, apoyando la participación de varias productoras en sendas ferias a través del programa*

*NINIAK.*

Antzerkiaren sektorean, Euskal antzerki ekoizpenen kanpoko zabalkundea eta merkaturatzea bultzatu ditugu zenbait erakusketa-plataformara joanda, esate baterako Tàrregako Antzerki Azokara (EUSKAL TEATROA), Valladolideko Nazioarteko Jaialdira (KALEARTEAN), Valentziako CONTARIA Azokara, Huescako Antzerki eta Dantza Azokara eta Lleidako Txotxongiloen Azoka. Plataforma hauetan gure Erkidegoko 15 ikuskizun aurkeztu ahal izan dira.

*En el sector del Teatro, se ha apoyado la difusión y la comercialización exterior de las producciones vascas acudiendo a distintas plataformas de exhibición: a la Feria de Teatro de Tàrrega con el programa EUSKAL TEATROA, al Festival Internacional de Valladolid con el programa KALEARTEAN, a la Feria de Teatro Infantil CONTARIA, en Valencia, a la Feria de Teatro y Danza de Huesca, y a la Fira de Titelles de Lleida. En dichas plataformas se han presentado un total de 15 espectáculos de nuestra comunidad.*

Arte plastiko eta ikusizkoen sektorean, euskal arte galeriak nazioarteko arte azoketan egon daitezen diru-laguntzak ematen jarraitu dugu.

*En el sector de las Artes plásticas y visuales, se ha seguido facilitando mediante ayudas económicas la presencia de las galerías de arte vascas en ferias internacionales de arte contemporáneo.*

Liburua eta Literaturaren sektorean, itzulpengintzarako laguntzekin jarraitu dugu: literatur lanen itzulpenetarako laguntzak, literatur lanen laginen itzulpenetarako laguntzak, nazioarteko merkatuetan itzulpen eskubideen salmentara zuzenduak, literatur itzulpenaren alorrean prestakuntza jarduerak antolatzeko laguntzak, eta aurretik itzulitako literatur lanen nazioarteko promoziorako laguntzak, bidai poltsen bitartez.

*En el sector del Libro y la Literatura, se mantienen también las ayudas a la traducción del libro vasco, mediante las modalidades de traducción de obras literarias, traducción de muestras de las mismas dirigidas a la venta de derechos de traducción en mercados internacionales, ayudas a la organización de actividades de formación en el ámbito de la traducción literaria, y ayudas a la promoción internacional de obras literarias ya traducidas, mediante bolsas de viaje.*

Bestalde, liburuak sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak laguntzen jarraitu dugu Euskadiko Autonomia Erkidegotik kanpo: horretarako, hitzarmenak sinatu dira Euskal Editoreen Elkartea eta Euskadiko Editoreen Gremioarekin. Honako azoka hauetan hartu dugu parte: Frankfurteko liburu azoka (Alemania), Liber, eta Guadalajarako nazioarteko liburu azoka (Mexiko).

*Por otra parte, se ha continuado con el apoyo a las actividades de promoción y difusión del libro fuera de la Comunidad Autónoma, a través de convenios firmados con Euskal Editoreen Elkartea y el Gremio de Editores de Euskadi. De esta forma se ha participado en la feria Liber, la feria del libro de Frankfurt (Alemania) y la feria internacional del libro en Guadalajara (México).*

Pirinioen Lantaldean parte hartzea mugaz gaindiko zenbait lankidetza proiekturi emandako babesean gauzatu da: Ikus-entzunezkoen sektorean, Donostiako Zinemaldiaren barruan egiten den Pirinioez bi aldeetako Koprodukzio Foroari emandako diru laguntza eta Pirinioez bi aldeetako ikus-entzunezko koprodukzioetarako sarien deialdi propio baten prestaketa.

*La participación en la Comunidad de Trabajo de los Pirineos se ha materializado en el apoyo a diversos proyectos de cooperación transfronteriza: en el sector Audiovisual, apoyo al Foro Transpirenaico de Coproducción, celebrado dentro del Festival de Cine de San Sebastián y preparación de una convocatoria propia de premios a la coproducción audiovisual transpirenaica.*

| **KOSTU / *COSTE*** | | **AURREKONTU GAIN %a** <br> ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** <br> ***IMPORTE*** | |
| | (Milaka Euroak) <br> *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak <br> 1 - *Gastos de Personal* | 802 | 105% |
| Funtzionamendu Gastuak <br> 2 - *Gastos de funcionamiento* | 1.714 | 99% |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak <br> 4 - *Transf. y subv. para gastos corrientes* | 20.738 | 99% |
| Kapital Eragiketetako Transf. eta Dirulaguntzak <br> 7 - *Transf. y subv. Con destino a operaciones de capital* | 7.015 | 100% |
| Finantza-Aktiboen gehikuntza <br> 8 - *Aumento de activos financieros* | 1.714 | 65% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** <br> ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA** <br> ***IMPORTE*** | |
| | (Milaka Euroak) <br> *(Miles de Euros)* | |
| Ondare-Sarrerak <br> 5 - *Ingresos Patrimoniales* | 3 | -- |
| Finantza-Aktiboen Gutxitxea <br> 8 - *Disminución de activos financieros* | 1.416 | -- |

**PROGRAMA**
4514 HISTORIA ETA ARTE ONDAREA

**ARDURADUNA**
10 KULTURA
KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL SAILBURUORDEA

HELBURUA

1. KULTURA ONDAREAREN BABESA, IKERKETA, SUSTAPENA ETA ZABALKUNDEA.
2. MUSEOEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA.
3. ARTXIBOEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA.
4. LIBURUTEGIEN EUSKAL SISTEMA GARATZEA.

BETETZE MAILA

1. KULTURA ONDAREAREN BABESA, IKERKETA, SUSTAPENA ETA ZABALKUNDEA

a) Kultura Ondarea Babestea.
Ekitaldi honetan hamabi monumentu sartu dira Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian. Bestalde, banakako monumentu bat eta monumentu-multzo bi sartu dira Kultura Ondasun Kalifikatuen Erregistro Nagusian. Horretaz gainera, herrigune historikoen deklarazioari buruzko lau dekretu aldatu dira, eta hiru higiezin desafektatu dira, hondamenagatik.

Ondare higigarriari dagokionez, artelanak esportatzeko 42 ziurtagiri eman dira.

b) Euskal Kultura Ondarearen Katalogoak eta Inbentarioak.
Alor honetan, Bizkaiko Zubien Katalogoa inbentariatzen eta berritzen jardun dugu, bai eta, arkeologiaren eremuan, Bizkaiko mendi-burdinolak aztertzen eta inbentariatzen ere.
c) Material arkeologikoen kudeaketa.
Dagokion diru-laguntzaren Aginduaren bitartez, EAEko aztarnategietako 84.996 material arkeologiko eta paleontologiko katalogatu dira guztira. Halaber, kontratu bidez, beste hainbat ondasun arkeologiko eta paleontologiko katalogatu dira (guztira 71.400 pieza).

Bestalde, arkeologiako 18 material-multzo tokiz aldatzeko baimena eman da, erakusketak zein ikerketak egiteko.

Gipuzkoako material arkeologikoak eta paleontologikoak biltegiratzeko zentroari dagokionez, 2009. urtean 18 aztarnategi berri biltegiratu dira (horietatik hamabost jada erkatuta daude), eta 76 ikertzailek jo dute bertara, batzuek gure erkidegotik, beste erkidego batzuetatik eta Europatik ere bai. Zentroan zaintzen diren materialen artean, 108 metalezko pieza zaharberritu eta tratatu dira. Erakusketetarako eta argitalpenetarako, azkenik, 107 irudi eskuratu ditu eta 25 faksimile egin dira.

***PROGRAMA***
*4514 PATRIMONIO HISTÓRICO ARTÍSTICO*

***RESPONSABLE***
*10 CULTURA*
*VICECONSEJERO DE CULTURA, JUVENTUD Y DEPORTES*

*OBJETIVO*

*1. PROTECCIÓN, INVESTIGACIÓN, FOMENTO Y DIFUSIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL.*
*2. DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE MUSEOS.*
*3. DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE ARCHIVOS.*
*4. DESARROLLO DEL SISTEMA VASCO DE BIBLIOTECAS.*

*GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. PROTECCIÓN, INVESTIGACIÓN, FOMENTO Y DIFUSIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL.*

*a) Protección del Patrimonio Cultural.*
*En este ejercicio se han incorporado al Inventario General de Patrimonio Cultural 12 Monumentos y han pasado a formar parte del Registro General de Bienes Culturales Calificados 1 Monumento y 2 Conjuntos Monumentales. Asimismo, se han modificado 4 Decretos de declaración de Cascos Históricos y se han desafectado, por ruina, 3 inmuebles.*

*En cuanto al Patrimonio mueble, se han expedido 42 certificaciones para la exportación de obras de arte.*

*b) Catálogos e Inventarios de Patrimonio Cultural Vasco.*
*En este ámbito se ha actuado en el inventario y renovación del Catálogo de Puentes de Bizkaia así como, a nivel arqueológico, en la prospección e inventariado de las ferrerías de monte, también de Bizkaia.*

*c) Gestión de materiales arqueológicos.*
*Mediante la correspondiente Orden subvencional se han catalogado un total de 84.996 materiales arqueológicos y paleontológicos procedentes de yacimientos de la CAPV. De igual modo, por medio de contrato, se ha procedido a catalogar diversos bienes arqueológicos y paleontológicos, alcanzando un total de 71.400 piezas.*

*Por otra parte, se ha autorizado el traslado de 31 conjuntos de materiales arqueológicos para exposiciones y analíticas.*

*En cuanto al Centro de Depósito e Investigación de los materiales arqueológicos y paleontológicos de Gipuzkoa se constata que, a lo largo de 2009, se han depositad 18 nuevos yacimientos (15 de los cuales ya están cotejados) y han acudido a él 76 investigadores procedentes de nuestra Comunidad, de otras Comunidades y del ámbito europeo. De los materiales allí custodiados se ha procedido a restaurar y tratar un conjunto de 108 piezas metálicas. Por último, dentro de la labor que desarrolla ha facilitado para exposiciones y publicaciones un conjunto*

*de 107 imágenes, realizándose también 25 facsímiles.*

d) Hirigintza-plangintza eta ingurumen-eraginak
Hirigintza-plangintzako eta Lurralde Antolamendurako 133 dokumentu aztertu dira guztira, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearentzat (EHLAB) eta baita hainbat udal eta aldundiren eskariz ere. Orotara, 50 txosten egin dira.

*d) Planeamiento urbanístico e impactos ambientales*
*Se han analizado un total de 133 documentos de planeamiento urbanístico y de Ordenación del Territorio para la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco (COTPV) y también a petición de Ayuntamientos y Diputaciones, emitiéndose un total de 50 informes.*

Horrekin batera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak dioenari jarraituz, 18 txosten eman ditugu.

*Asimismo, de conformidad con la previsión recogida en la Ley de Suelo y Urbanismo, se han emitido un total de 18 informes.*

Aurten, hirigintza-plangintzarako baliabideak idazteko eta aldatzeko dirulaguntzak ematen dituen agindua eduki dugu. Horrek Balmaseda, Trápaga-Trapagaran, Bilbo eta Zigoitiko udalei lagundu die, bai eta Vitoria-Gasteizko udaleko Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako udal Eragintegiari ere, herrigune historikoko Landatxoko harresien azterketa historiko-arkeologikoa egiteko.

6.3. LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN LANTOKIKO PRESTAKUNTZA EUSKARAZ:

2009ko apirilean Oarsoaldeko lau udalen (Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia), GLHBI Don Bosco ikastetxearen eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko elkarlanetik egitasmo zehatz bat jarri zen martxan: Lanbide Heziketako ikasketak euskaraz egin eta enpresetako praktikak euskaraz egiteko aukera eskainiko duen esperientzia pilotua.

Irizpide zehatz batzuen arabera, enpresa jakin batzuk hautatu ziren: Papresa SA, Elster-Iberconta SA, Inasmet Fundazioa, Easo Motor, Centrauto, Lorauto, Asea Brown Boveri SA (Niessen).

Aurrekontuari dagokionez, 2009an, 7 enpresen Planifikazioa, diagnosia, diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa egiteko 14.701,84 €ko ordainketa egin du Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak.

*6.3. PRÁCTICAS EN EUSKERA EN EMPRESAS PARA ALUMNOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL:*

*En abril de 2009, fruto de la colaboración entre los cuatro ayuntamientos que forman Oarsoaldea (Errenteria, Lezo, Oiartzun y Pasaia), el Instituto Específico de Formación Profesional Superior Don Bosco y la Viceconsejería de Política Lingüística se puso en marcha una experiencia piloto para ofrecer la posibilidad de hacer prácticas en euskera en empresas para estudiantes de formación profesional que cursan sus estudios en esa lengua.*

*Para ello, se eligieron unas empresas concretas en función de varios criterios: Papresa SA, Elster-Iberconta SA, Inasmet Fundazioa, Easo Motor, Centrauto, Lorauto y Asea Brown Boveri SA (Niessen).*

*La Viceconsejería de Política Lingüística ha destinado 14.701,84 € para la realización de la planificación de las 7 empresas, el diagnóstico, diseño, implementación y evaluación.*

6.4. IMH MINTEGIA.

Makina Erremintaren Institutuak antolatzen duen 30+10 Mintegiaren 4. edizioaren antolaketan laguntzailea izan da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Mintegian "hizkuntzen kudeaketa enpresetan" gaia aztertu da. Bestalde Mintegian Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, finantza-etxeen neurgailua aurkeztu du eta mahainguruan parte hartu.

*6.4. SEMINARIO IMH MINTEGIA.*

*La Viceconsejería de Política Limgüística ha participado en la 4ª edición del seminario 30+10 organizado por el Instituto de Máquina Herramienta sobre el tema "gestión lingüística en la empresa" . Por otra parte, en el seminario, la VPL ha presentado la herramienta para medir la situación del euskera en la entidades financieras y ha participación en una mesa redonda.*

6.5 FINANTZA-ETXEEN NEURGAILUA: EUSKARAREN ERABILERA-ADIERAZLEAK NEURTZEKO APLIKAZIOA.

Aplikazioa finantza-etxeen lana errazteko sortu da, eta erakundeek modu arin eta eraginkorrean euskararen erabilera neurtzeko adierazleak kudeatu ditzaten. Helburua, beraz, honako hau da: neurtu nahi den gunearen arabera galdetegiak sortu ahal izatea, gunez guneko datuak jaso ahal izatea, guneei buruzko hainbat

*6.5 NEURGAILUA: APLICACIÓN PARA LA MEDICIÓN DE LOS INDICADORES DEL EUSKERA EN LAS ENTIDADES FINANCIERAS.*

*Esta aplicación se ha creado para facilitar la labor de las entidades financieras y para que éstas puedan gestionar los indicadores de medición de la situación del euskera de manera eficaz. Los objetivos principales son: crear los cuestionarios que se utilizarán para medir la situación en una determinada unidad, recabar la información de cada*

kontsulta eta txosten egin ahal izatea eta erakundeak euskararen erabilera hobeto kudeatzeko aukerak hobeto identifikatu ahal izatea.

*una de las unidades, realizar consultas e informes sobre las mencionadas unidades e identificar de manera más adecuada las oportunidades de las entidades para una mejor gestión del uso del euskera.*

7. ADMINISTRAZIOEN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAK ETA EBPN-AK (EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA) INDARTZEA, EUSKARA ZERBITZU-HIZKUNTZA EZ EZIK GERO ETA ADMINISTRAZIO-ATAL GEHIAGOTAN OHIKO LAN-HIZKUNTZA ERE IZAN DADIN NEURRIAK HARTUZ.

*7. FORTALECER LOS PLANES PARA LA NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKARA Y DEL PGPUE (PLAN GENERAL DE PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA) DE LAS ADMINISTRACIONES, DESARROLLANDO MEDIDAS PARA QUE EL EUSKERA, ADEMÁS DE LENGUA DE SERVICIO, SE CONVIERTA EN LENGUA HABITUAL DE TRABAJO EN CADA VEZ MÁS ÁREAS ADMINISTRATIVAS.*

<u>5.000 biztanletik beherako udalerrietan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko bideak aztertu EUDELekin batera</u>

*<u>Explorar junto con EUDEL las vías de desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera en los municipios de menos de 5.000 habitantes</u>*

Lankidetza hitzarmena izenpetu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EUDELekin 2009an. 2011ra arte egongo da indarrean eta 84.000 euro guztira jasoko du Euskadiko Udalen Elkarteak, 28.000 euro urtero.

*La Viceconsejería de Política Lingüística suscribió en 2009 un convenio de colaboración con EUDEL, que estará en vigor hasta 2011. El importe total que recibirá la Asociación de Municipios Vascos ascenderá a 84.000 euros, a razón de 28.000 euros anuales.*

2009. urtean EUDEL, besteak beste, bereziki 5.000 biztanletik beherako udalen aholkulari-lana egiten aritu da: euskara erabiltzeko udal estatutuen onarpena, hauek betearaztea, agiri ofizial guztien jendaurreko erakusketa ele bietan egin behar izatea ala ez eta abar. Halaber, Arabako koadrilletan hizkuntza normalkuntzako teknikariak kontratzeko ekimenean parte hartu zuen landa-lana eginez. 2009. urtean teknikari horien zeregin nagusia koadrilletako euskara biziberritzeko plan nagusiak egitea izan da.

*Durante 2009 EUDEL, entre otros cometidos, ha asesorado fundamentalmente a municipios de menos de 5.000 habitantes: aprobación de reglamentos de uso del euskera, su cumplimiento, obligación o no de la exposición al público de todos los documentos oficiales, etc. Además, ha participado en la iniciativa para la contratación de técnicos de normalización lingüística en las cuadrillas de Álava, mediante la realización del trabajo de campo. La labor fundamental de estos técnicos durante 2009 ha sido la elaboración de los planes generales de normalización del uso del euskera en las cuadrillas.*

<u>2008-2012 aldian Euskal Autonomia Erkidegoaren Herri Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (barruko Erabilera Planak eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) garatzeko eta hedatzeko bideak landu</u>

*<u>Elaborar las vías dirigidas al desarrollo y expansión del Plan de Normalización del Uso del Euskera en la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el período 2008-2012 (Planes de Uso interno y el Plan General de Promoción del Uso del Euskera)</u>*

Herri Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planetik abiatuta, indarrean dago Planaren IV plangintzaldia (2008-2012). Eusko Jaurlaritzan 3.000 langile inguru daude Erabilera Planaren eraginpean.

*Partiendo del Plan de Normalización del Uso del Euskera en las Administraciones Públicas, está en vigor el IVº periodo de planificación (2008-2012). El Plan de Uso en el Gobierno Vasco afecta a unos 3.000 empleados.*

Irati aplikazio informatikoa garatu da, erabilera planaren ezarpena erraztu eta bere jarraipena ahalbidetzeko. Horrela bada, Irati aplikazioaren aurkezpena egin zen otsailean eta administrazioetako Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarientzako prestakuntza saioak antolatu dira uztailean, irailean eta abenduan.

*Se ha desarrollado la aplicación informática Irati para facilitar la implantación del plan de uso y posibilitar su seguimiento. Así, en febrero se efectuó la presentación de la aplicación Irati y se organizaron sesiones de formación para los técnicos de Normalización Lingüística de las administraciones en julio, septiembre y diciembre.*

Halaber, Eusko Jaurlaritzako teknikariekin lan-saioak egin dira azaroan eta abenduan, Irati aplikazioaren gainean, Sailen egoeren diagnostikoa egiteko behar den datuen bilketa antolatzeko.

*Así mismo, se han organizado sesiones de trabajo con los técnicos del Gobierno Vasco en noviembre y en diciembre sobre la aplicación Irati a fin de organizar la recogida de datos que permitirá realizar el diagnóstico de la situación en los Departamentos.*

<u>IV. Plangintzaldiko lan-ildoak garatzea</u>

*<u>Desarrollar las líneas de trabajo fijadas por el IVº período de planificación</u>*

Erakundeen arteko koordinazioa ahalbideratu eta esperientziak elkar trukatzeko guneak antolatu dira.

*Se han organizado espacios para posibilitar la coordinación interinstitucional y el intercambio de experiencias.*

Zentzu honetan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Herri administrazioetako Hizkuntza Normalkuntzako Teknikarientzako lan jardunaldiak antolatu zituen Bilbon, urtarrilaren amaieran. Jardunaldion izena: Erabilera planak herri-administrazioetan.

*En este sentido, la Viceconsejería de Política Lingüística organizó unas jornadas de trabajo para los Técnicos de Normalización Lingüística en Bilbao a finales de enero bajo el título Planes de uso en las administraciones públicas.*

Bestalde, Euskara Zerbitzuen arteko esperientziak elkar trukatzeko asmoz sortu zen Udaltop (Udaletako Euskara Zerbitzuen topaketak) egitasmoarekin lankidetzan jardun du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Lehen topaketak maiatzean antolatu ziren Lasarte-Orian, familia bidezko hizkuntza transmisioaren gaiari buruz. Topaketa hauek urtean behin antolatuko dira gai desberdinak jorratzeko.

*Por otro lado, la Viceconsejería de Política Lingüística ha colaborado en el proyecto Udaltop (Udaletako Euskara Zerbitzuen topaketak) creado para el intercambio de experiencias entre los Servicios de Euskera. Los primeros encuentros se organizaron en mayo en Lasarte-Oria sobre el tema de la transmisión lingüística en el entorno de la familia. Estos encuentros se organizarán una vez al año para tratar distintos temas.*

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak familia bidezko hizkuntza transmisioari buruzko CD bat argitaratu du, Buruntzaldean 2005etik 2008ra bitartean gauzatu zen egitasmoan oinarrituta. Lanaren izenburua: Nola heldu transmisioaren gaiari?

*La Viceconsejería de Política Lingüística ha editado un CD sobre la transmisión lingüística en el entorno de la familia, basado en el proyecto llevado a cabo en la comarca de Buruntzaldea entre 2005 y 2008. Título del trabajo: Nola heldu transmisioaren gaiari?*

<u>Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatu edota entitateotako administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak onartzeko diru-laguntzak</u>

*<u>Ayudas económicas para el desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera en entidades locales de la CAPV y para la aprobación de planes de normalización del uso del euskera en las administraciones de las mencionadas entidades locales</u>*

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak toki-entitateetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) sustatzeko hainbat laguntza bideratu ditu 2009an. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateei (udalei, mankomunitateei…) zuzendu zaie diru-laguntza deialdia, honako laguntza-gaiokin:

*La Viceconsejería de Política Lingüística ha gestionado diversas ayudas para impulsar el Plan General de Promoción del Uso del Euskera en las entidades locales. Esta convocatoria de subvenciones destinada a las entidades locales de la Comunidad Autónoma Vasca cuenta con las siguientes líneas de ayudas:*

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartua dutenentzat, eta Hizkuntza Politikarako Sailak lehenetsitako helburu-esparruetara bideratutako ekintzak gauzatzea.

*- la destinada a aquellas que tengan aprobado el Plan General de Promoción del Uso del Euskera, puesta en marcha de actuaciones dirigidas a los objetivos y ámbitos priorizados por la Viceconsejería de Política Lingüística.*

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abian jarri nahi duten toki entitateentzat, plan estrategikoaren diseinua eta onarpena, eta 2010eko kudeaketa-planaren diseinua.

*- la destinada a aquellas entidades locales que deseen poner en marcha el Plan General de Promoción del Uso del Euskera, diseño y aprobación del plan estratégico, y diseño del plan de gestión de 2010.*

- Toki-entitatearen administrazioan hizkuntzaren erabilera normalizatzeko plana prestatu eta 2009an onartzea.

*- la destinada al diseño y aprobación en 2009 del plan de normalización del uso de la lengua en la administración de las entidades locales.*

- Hiru lurraldeetako hiru hiriburuetan lehenetsitako helburu-esparruetara bideratutako ekintzak gauzatzea.

*- la destinada a la ejecución de acciones dirigidas a los objetivos y ámbitos priorizados en las tres capitales de los tres territorios históricos.*

Eginkizun horietarako, 2009an 1.700.000 euroko laguntza bideratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Baliabide horiei esker, 114 toki-entitatek (udalak eta mankomunitateak) beren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian jasotako hainbat ekintza gauzatu dituzte, beste 9k 2010erako beren EBPN martxan jarri ahal izateko plan estrategikoaren diseinu-lanak egiteko laguntza jaso dute. Beren administrazioan erabilera normalizatzeko plana prestatzeko 3 toki-entitateri agindu zaio diru-laguntza eta bukatzeko laugarren multzoan 3 hiriburuak lagundu dira.

*La Viceconsejería de Política Lingüística ha destinado en 2009 1.700.000 euros a esos cometidos. Gracias a esos recursos, 114 entidades locales (ayuntamientos y mancomunidades) han desarrollado diversas actividades recogidas en su Plan General de Promoción del Uso del Euskera. Otras nueve entidades han recibido subvenciones para poner en marcha en 2010 su Plan General de Promoción del Uso del Euskera. Por otra parte, se ha concedido a tres entidades ayudas para preparar el plan de normalización de uso en su administración y, finalmente, las tres capitales también han sido subvencionadas en el cuarto grupo.*

<u>Toki-entitateetan euskara-planen ezarpenaren ondorioz finkatzen diren neurrien ebaluazio-, jarraipen- eta koordinazio-ekintzetan udal-euskaltegietako irakasleek duten partaidetza finantzatzeko laguntzak (PINBE deialdia) (PINBE: Planetan irakasleak normalizatzaile bihurtzeko ekimena)</u>

*<u>Ayudas destinadas a la participación de profesores de euskaltegis municipales en actividades de evaluación, seguimiento y coordinación derivadas de la implantación de los planes de euskera en las entidades locales (convocatoria PINBE) (PINBE: Acciones para la conversión de profesores en técnicos de normalización de los planes de euskera)</u>*

Beste alde batetik, PINBE laguntza-deialdiaren bitartez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Udal

*Por otro lado, por lo que respecta a la convocatoria de subvenciones PINBE, destinadas a las instituciones*

euskaltegietako erakunde titularrei eskaintzen zizkien diru-laguntzak 2009an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatu beharrean HABEk —Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea— kudeatu ditu.

*titulares de los euskaltegis municipales, ésta ha sido gestionada en 2009 por HABE –Instituto para la Alfabetización y Reeuscaldunización de Adultos– y no por la Viceconsejería de Política Lingüística.*

8. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIETAN EUSKARAZKO BALIABIDEAK, TRESNAK ETA APLIKAZIO BERRIAK GARATZEA. HALABER, EUSKARAREN PRESENTZIA AREAGOTZEA INTENET-EN, EDUKI DIGITALAK SORTUZ.

- Euskarazko produktu informatikoak erabiltzaileen eskuetan jartzen jarraitzeko zabaldutako lan-lerroari jarraituz, kode irekiko OCRa jarri dugu eskuragarri www.euskara.euskadi.net gunean “Euskarazko softwarea deskargatzeko” atalean: Tesseract-OCRopus Windows eta Linux.
- Espainieratik euskarara testu orokorrak itzultzeko erreminta eskuratu da eta Jaurlaritzaren sisteman integratzeko urratsak martxan dira.
- Interneten euskarazko edukiak aberasteko, Lur Hiztegi Entziklopediko eta Lur Entziklopedia Tematiko eguneratuen eta euskarazko doktorego-tesien corpusen aplikazio informatikoak prestatu dira.
- EJIErekin kudeaketa-agindua sinatu da OpenOffice.org (3.2 bertsioa) eta GNOME-ren euskarazko bertsio berriak egiteko.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Inbentarioa eguneratzen jarraitu dugu.
- Microsoften Windows 7 eta Office 14ren euskarazko lokalizazio-glosarioa gainbegiratu, zuzendu eta ontzat eman dugu.
- EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoaren Interneteko aplikazioa aldatzeko bai eta bankua elikatzeko eta mantentzeko lan informatikoak egin dira.

*8. DESARROLLO DE NUEVOS RECURSOS, HERRAMIENTAS Y APLICACIONES EN EUSKERA EN LOS CAMPOS DE LAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y DE LA COMUNICACIÓN. ASIMISMO, INTENSIFICAR LA PRESENCIA DEL EUSKERA EN INTERNET, CREANDO CONTENIDOS DIGITALES.*

- *Continuando con la línea de trabajo emprendida para poner a disposición de los usuarios productos informáticos en euskera, hemos puesto a disposición de los usuarios en el sitio www.euskara.euskadi.net en la seccón “Descarga de software” la aplicación OCR de software libre Tesseract-OCRopus para Windows y Linux.*
- *Se ha realizado la entrega de la herramienta de traducción automática de textos generales del español al euskera y se han iniciado los trámites para su integración en el sistema informático del Gobierno.*
- *Con el fin de incrementar los contenidos en euskera en la red, se han elaborado las aplicaciones informáticas de dos corpus: el Diccionario Enciclopédico y la Enciclopedia Temática Lur actualizados y el corpus de tesis doctorales en euskera.*
- *Se ha firmado una encomienda de gestión con EJIE para llevar a cabo las actualizaciones de OpenOffice.org (v. 3.2) y de GNOME.*
- *Hemos seguido actualizando el Inventario de las Tecnologías de la Información y de la Comunicación.*
- *Hemos revisado, corregido y aprobado el glosario para las localizaciones a euskera de Windows 7 y Office 14.*
- *Se han llevado a cabo trabajos informáticos para la adpatación de la aplicación de Internet del Banco Público de Terminología EUSKALTERM así como de la aplicación de su actualización y mantenimiento.*

9. EUSKARAREN CORPUSA ESTANDARIZATZEN ETA MODERNIZATZEN JARRAITZEA ETA HIZKUNTZA KALITATEA BERMATZEA.

- Euskaltzaindiarekin, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearekin, EIZIErekin eta Labayru Ikastegiarekin urteko hitzarmena izenpetu eta garatu da.
- EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa eguneratzeko eta elikatzeko 2012aren bukaera arteko kontratua sinatu da.
- Terminologia-arloan egindako lanen normalizazioari begira eta Terminologia Batzordeari aurkeztu aurretik, hiztegi terminologikoak aztertzeko batzorde teknikoak antolatzen jarraitu dugu. Terminologia Batzordeak onartutako urteko Jarduketa-planeko lanak burutu ditugu. Terminologia Batzordeak 5 hiztegi onartu ditu.

*9. CONTINUAR CON LA ESTANDARIZACIÓN Y LA MODERNIZACIÓN DEL CORPUS DEL EUSKERA Y ASEGURAR LA CALIDAD LINGÜÍSTICA.*

- *Se ha firmado y ejecutado el convenio anual con la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, con la Asociación de Amigos del Bertsolarismo, con la Asociación EIZIE y con el Instituto Labayru.*
- *Se ha firmado con la entidad UZEI un contrato plurianual hasta finales de 2012 para llevar a cabo los trabajos de actualización y mantenimiento del Banco Terminológico Público EUSKALTERM.*
- *Hemos continuado con la creación de comisiones técnicas para analizar los trabajos terminológicos elaborados, previos a la presentación a la Comisión de Terminología. Se han llevado a cabo los trabajos del Plan de Actuación aprobado por la Comisión de Terminología que ha aprobado 5 diccionarios*

*especializados.*

- o Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografikoa egiteko kontratua sinatu da 2010ean amaituko dena.

- o *Se ha firmado un contrato para la realización del Nomenclátor Geográfico de la Comunidad Autónoma Vasca, que finalizará en 2010.*

- o Biztanle-entitateen izen ofiziala aldatzeko asmoz, Araban, 15 kontzejuren espedienteak amaitu dira; Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan kontzeju ez diren 113 biztanle-guneren izen ofizialak argitaratu dira zegozkien aldizkari ofizialetan.

- o *En Álava, con el fin de cambiar el nombre oficial, se han finalizado 15 expedientes de cambio de nombre oficial de concejos; en Álava, Bizkaia y Gipuzkoa se han publicado 113 nombres de núcleos de población en sus respectivos boletines oficiales.*

10. EUSKARAREN EREMU OSOAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO JARDUNA BULTZATZEA, IPAR EUSKAL HERRIKO ETA NAFARROAKO HERRI-ERAKUNDEEKIN ETA ELKARTEEKIN LANKIDETZA BULTZATUZ.

*10. IMPULSAR LA ACCIÓN DE FOMENTO DEL USO DEL EUSKERA EN LA TOTALIDAD DE SU ÁMBITO TERRITORIAL, ENCAUZANDO LA COLABORACIÓN CON LAS INSTITUCIONES Y ASOCIACIONES DEL PAIS VASCO NORTE Y NAVARRA.*

10.1. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAKO IRAKURLE SAREA:

2009 eta 2009-10 ikasturteetan hitzarmen kopuru berbera bideratzeko asmoa izan zuen HPSk, baina hiru unibertsitatetan arazoak egon dira eta ez bideratzea erabaki zen. Bertan behera geratutakoak Buenos Aireseko Unibertsitatea, Valparaisoko Unibertsitatea eta Freie Universität Berlin izan dira. Gauzak horrela, guztira hogeita bi unibertsitatetan garatu da Euskara eta Euskal Kulturako Irakurleen Programa 2009an. Normalean hitzarmenak ikasturte bakarrerako onartzen badira ere, HPSri egokia iruditu zaio bi unibertsitatetan ikasturte anitzeko hitzarmena sinatzea, hala, Universidad Nacional Autónoma de México, UNAM unibertsitatearekin hiru ikasturtetarako (2009-2012) konpromisoa hartu da, eta Errepublikako Unibertsitatea (Uruguai) unibertsitatearekin lau ikasturtetarako (2009-2012, ikasturtea urte naturalarekin bat dator eta).

*10.1. RED DE LECTORES DE EUSKERA Y CULTURA VASCA.*

*La VPL tenía como objetivo continuar impulsando el Lectorado de Euskera y Cultura Vasca en las mismas universidades que el ejercicio anterior, pero surgieron problemas de distinta índole en tres universidades, por lo que se decidió no tramitar la firma de dichos convenios. Esas universidades han sido la Universidad de Buenos Aires, la Universidad de Valparaíso y la Freie Universität Berlin. Así las cosas, el Programa de Lectorados de Euskera y Cultura Vasca se ha desarrollado satisfactoriamente en veintidós universidades durante el año 2009. Habitualmente los convenios se firman para un sólo año académico, pero la VPL ha considerado conveniente adquirir un compromiso para varios cursos con dos universidades: con la Universidad Nacional Autónoma de México, UNAM se ha firmado un convenio para el periodo 2009-12, es decir, para tres años académicos; por otra parte, con la Universidad de la República (Uruguay) el compromiso adquirido ha sido para cuatro años (2009-12), teniendo en cuenta que el desarrollo del curso coincide con el año natural.*

10.2. NAZIOARTEKO HIZKUNTZA AZOKAK: Euskararen berri lau (3) hizkuntza azokatan eman da: Expolingua Paris, London Language Show eta Expolingua Berlin.

*10.2. FERIAS INTERNACIONALES DE LENGUAS: El euskera ha estado presente en cuatro (3) ferias de lenguas: Expolingua Paris, London Language Show eta Expolingua Berlin.*

10.3. IPAR EUSKAL HERRIA

- o Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko lankidetza hitzarmenaren baitan Ipar Euskal herriko eragileentzako dirulaguntza deialdia bideratu da. 68 eragileen artean 86 proiektu aurkeztu eta diruz lagundu dira.

*10.3. PAIS VASCO NORTE*

- o *A través del acuerdo de la Viceconsejería de Política Lingüística con el Organismo Público de la Lengua Vasca (Euskararen Erakunde Publikoa) se realiza una convocatoria de ayuda para los agentes de Iparralde. En 2009 68 agentes han presentado un total de 86 proyectos.*

10.4. NAFARROA

- o Nafarroko Euskararen Kultur Elkargoari dirulaguntza eman zaio, erakunde horren urteko jarduera laguntzeko.

*10.4. NAVARRA*

- o *Se ha concedido una ayuda a la asociación Euskararen Kultur Elkargoa de Navarra para financiar la actividad anual de la asociación.*

10.5. ARGITALPENAK:

- o Nagusiki EAEn banatzekoak badira ere, "Euskara

*10.5. PUBLICACIONES:*

- o *Aun cuando mayoritariamente su difusión se lleva a*

mintzagai" bildumaren baitan bi (2) liburu argitaratu eta banatu dira ("Herri literatura" eta "Euskarak erakutsi koloreak ikusten").

- "Euskararen Berripapera"ren prestaketa eta zabalkundea egin da (egunero-egunero albiste bat Internet bidez; astean asteko Internet bidezko albiste-sorta; hilero paperezko zein Internet bidezko zenbakia).
- "Bidegileak" bilduman, bestalde, 4 karpeta berri argitaratu dira (guztira 16 liburuki).

*cabo en la CAE, se ha procedido a la edición y distribución de dos (2) títulos pertenecientes a la colección "Euskara mintzagai ("Herri literatura" y "Euskarak erakutsi koloreak ikusten").*

- *Se ha elaborado y difundido el boletín informativo bilingüe "Euskararen Berripapera" ( una noticia diaria vía internet; semanalmente un paquete de noticias vía internet; mensualmente el ejemplar correspondiente en versión impresa y versión internet).*
- *Se han editado y distribuido 4 carpetas de la colección "Bidegileak" (en total 16 monografías).*

10.6. INTERNET BIDEZ:

Euskara.euskadi.net atariko hainbat eduki berritu da eta beste horrenbeste berri txertatu.

*10.6. INTERNET:*

*Se han actualizado numerosos contenidos e incorporado otros en la página web euskara.euskadi.net.*

11. ESPAINIAN ETA NAZIOARTEAN HIZKUNTZA GUTXITUEN SUSTAPEN POLITIKETAN DIHARDUTEN ERAKUNDEEKIN HARREMANA SENDOTZEA.

- "Espainiako Estatuko Errealitate Eleaniztunaren Sustapen Saria" sortu da 2009an, Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak, Illes Balearseko Gobernuak eta Galiziako Xuntak sinatutako lankidetza hitzarmenaren esparruan. Horren bidez, pertsona, enpresa, entitate edo erakunderen batek eleaniztasunaren alde egindako lana saritu nahi dute sinatzaileek. Ohorezko aipamena adierazten du sariak, eta ez dakar inolako diru ekarpenik. Microsoft izan da lehenengoz saritutako enpresa, teknologia berriak eta eleaniztasuna batzeko egin duen lanagatik.
- "ESKUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNA: LORPENAK ETA DESAFIOAK" izeneko Jardunaldien antolakuntzan parte hartu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
- "LA TRANSMISION NATURAU E FAMILIAU DE LA LENGA OCCITANA E DE LAS LENGAS REGIONAUS O MINORITARIAS EN EUROPA" jardunaldietan parte hartu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, familia bidezko transmisioari buruzko ikerketaren emaitzak aurkeztuz.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Europako "Network to Promote Linguistic Diversity"-ren kide da eta 2009an izandako bileretan parte hartu du. Halaber, sareak Dublinen, 2009ko abenduan, Terminologiari buruzko eta Hizkuntza Plangintzari buruzko mintegietan parte hartu du gai horiei buruzko hitzaldiak emanez.

*11. CONSOLIDAR LA RELACIÓN CON LOS ORGANISMOS QUE LLEVAN A CABO POLÍTICAS DE FOMENTO DE LAS LENGUAS MINORIZADAS EN ESPAÑA Y EN EL ÁMBITO INTERNACIONAL.*

- *En el marco del convenio de colaboración que mantienen el Gobierno vasco con la Generalitat de Cataluña, la Xunta de Galicia y el Gobierno Balear, se ha creado en 2009 el premio "Fomento del plurilingüismo en el Estado Español" dirigido a fomentar la naturaleza plurilingüística del Estado: Mediante este galardón quiere premiarse la labor realizada por alguna persona, empresa, institución u organismo en pro del plurilingüísmo. Este premio representa una mención honorífica y no acarrea ninguna aportación monetaria. La primera empresa premiada con esta distinción ha sido Microsoft, por la labor realizada para unir las nuevas tecnologías y el plurilingüísmo.*
- *La Viceconsejería de Política Lingüística ha participado en la organización del Congreso "ESKUALDEETAKO EDO EREMU URRIKO HIZKUNTZEN EUROPAKO GUTUNA: LORPENAK ETA DESAFIOAK"*
- *La Viceconsejería de Política Lingüística ha partipado en las jornadas sobre "LA TRANSMISION NATURAU E FAMILIAU DE LA LENGA OCCITANA E DE LAS LENGAS REGIONAUS O MINORITARIAS EN EUROPA", con la presentación de los resultados un estudio sobre transmisón familiar.*
- *La Viceconsejería de Política Lingüística es miembro de la red europea "Network to Promote Linguistic Diversity" y ha participado en todas las reuniones mantenidas por la red en 2009. Así mismo, ha presentado ponencias en los seminarios sobre Terminología y sobre Planificación Lingüística organizados por la red en Dublín, en diciembre de 2009.*

12.. EZAGUPENETIK ERABILERARA JAUZIA EGITEA.

10.1. Helburu hori lortze aldera lau (4) laguntzabide jorratu dira eta hainbat hitzarmen sinatu da. (ikus 2. helburua)

*12. FAVORECER EL PASO DEL CONOCIMIENTO AL USO.*

*10.1. A fin lo materializar el objetivo propuesto se han gestionado cuatro (4) convocatorias (asimismo se ha suscrito numerosos convenios. (Véase Objetivo 2).*

10.2. Euskararen erabilera soziala bultzatzeko sentiberatze kanpainak egin dira:

- o "Pixka bat es mucho" kanpaina, jendea lotsarik eta beldurrik gabe, dakien euskara, asko edo gutxi, erabiltzera animatzen duena eta era berean euskararik ez dakitenak euskara ikastera animatzen dituena.
- o "Zure hizkuntz eskubideak babesteko" ELEBIDE, Hizkuntz Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua
- o "Mundoro euskaraz" kanpaina, Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan. Euskararen erabileraren eta hizkuntza aniztasunen eta aberastasunaren inguruko sentsibilizazioa ekintza.

*10.2. Se han llevado a cabo varias campañas de sensibilización:*

- o *"Pixka bat es mucho" , campaña que trata de animar a las personas que saben euskera a utilizarlo, cada uno a su nivel, sin miedo y sin complejos, y a aquellas personas que no saben euskera a que den el prmer paso para comenzar a aprenderlo.*
- o *"Protege tus derechos lingüísticos" ELEBIDE, Servicio para la garantía de los derechos lingüísticos.*
- o *"Munduoro euskaraz", campaña realizada en torno al Día Internacional del Euskera, acción de sensibilización en torno al uso del euskera y a la diversidad y riqueza lingüísticas.*

13. BILAKAERA SOZIOLINGUISTIKOAREN BERRI IZATEKO IKERLANAK BULTZATZEA (EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA ADIERAZLEEN SISTEMA –EAS).

1) IV. MAPA SOZIOLINGUISTIKOA.
EAEko egoera eta bilakaera soziolinguistikoaren berri ematen du, eta honako aldagai nagusi hauek jorratzen ditu:

- o Hizkuntza-gaitasuna
- o Lehen hizkuntza
- o Etxeko erabilera

2) AHOZKO ERABILERA BEHATZEKO METODOLOGIAK BILTZEKO ETA BATERATZEKO IKERKETA.

Ikerketaren helburuak honakoak dira:

- o Behaketa bidezko metodología desberdinak bildu
- o Bilketa oinarri hartuta, metodologia hori gune eta esparru desberdinetarako sistematizatu eta estandarizatu
- o Errorea eta fidagarritasun-maila kalkulatzeko aukerak aztertu eta zehaztu
- o Ustiaketa estatistikoa eta eskuratutako emaitzen oinarrizko irakurketa egiteko gida osatu

3) EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN 2008AN EUSKARA SUSTATZERA BIDERATU DIREN AURREKONTUEI, GIZA BALIABIDEEI NAHIZ DIRULAGUNTZA DEIALDIEI ETA HITZARMENEI BURUZKO AZTERKETA.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, bi urtez behin egiten du euskararen aurrekontuei buruzko ikerlana. Oraingoan, aurrekontuak oro har jasotzeaz gain, dirulaguntza deialdiak eta hitzarmenak propio aztertu dira.

4) MINTZAPRAKTIKA EGITASMOEN ERAGINKORTASUNA NEURTZEKO IKERKETA.

Ikerketaren helburua honakoa da: Euskararen ezagutzan eta erabileran zein hizkuntzarekiko motibazioan mintzapraktika egitasmoek duten eragina aztertu eta euskarazko harreman-sareak trinkotzen zenbateraino laguntzen duten ezagutu.

5) "GIZARTE SAREEK+EUSKARA2.0K" EUSKARAREN

*13. IMPULSAR LOS TRABAJOS DE INVESTIGACIÓN PARA CONOCER LA EVOLUCIÓN SOCIOLINGÜÌSTICA (SISTEMA DE INDICADORES LINGÜÍSTICOS DE EUSKAL HERRIA –EAS).*

*1) IV. MAPA SOCIOLINGÜÍSTICO.*
*Analiza la situación y la evolución socilolingüística de la CAV a través de la siguientes variables principales:*

- o *Competencia lingüística*
- o *Primera lengua*
- o *Lengua de uso en casa*

*2) ESTUDIO PARA LA RECOPOLACIÓN Y UNIFICACIÓN DE LAS DIFERENTES METODOLOGÍAS DE ANALISIS DEL USO ORAL A TRAVÉS DE LA OBSERVACIÓN.*

*Los objetivos del estudio son los siguientes:*

- o *Recopilar la diferentes metodologías del uso oral a través de la observación*
- o *Tomando como base dicha recopilación, sistematizar y estandarizar la metodología para los diferentes ámbitos*
- o *Analizar y definir las opciones para el cáculo del error muestral y el nivel de confianza*
- o *Redactar una guía para la realización de la explotación estadística y la interpretación básica de los resultados*

*3) ESTUDIO SOBRE LOS PRESUPUESTOS, RECURSOS HUMANOS, SUBVENCIONES Y CONVENIOS DESTINADOS A LA PROMOCIÓN DEL EUSKERA EN LA COMUNIDAD AUTONOMA VASCA DURANTE EL 2008.*

*La Viceconsejería de Política Lingüística realiza cada dos años un estudio sobre los presupuestos del euskera. En esta ocasión además de estudiar los presupuestos en general, se han analizado específicamente las subvenciones y los convenios.*

*4) ESTUDIO PARA MEDIR LA EFICACIA DEL PROGRAMA "MINTZAPRAKTIKA.*

*Ësta es la finalidad del estudio: Analizar la influencia del programa mintzapraktika tanto en el conocimiento y uso del euskera como en la motivación del idioma, y en qué medida ayuda al afianzamiento de las relaciones en euskera..*

*5) "ESTUDIO PARA CONOCER LA EFICACIA DE LAS REDES*

ERABILERAREN SUSTAPENEAN DUTEN ERAGINKORTASUNA EZAGUTZEKO AZTERKETA.

Ikerketaren helburuak honakoak dira: gizarte-sareetan erabiltzen diren tresnen deskribapen zehatza egitea, interneteko euskarazko edukien erabilera eta nabigazio ohiturak ezagutzea, aztertzea eta azaltzea, eta erabiltzaileek oro har eta euskal erabiltzaileek bereziki dituzten nahiak, beharrak eta aurrera begirako lan-ildoak zehaztea.

6) EUSKARAREN AZPIEGITUREN DATU-BASEA ELIKATU ETA EGUNERATU.

Helburuak honakoak dira: gaur egun euskara azpiegitura publiko nahiz pribatutzat jo daitezkeen elkarteak zein erakundeak zehatz-mehatz sailkatzea, datu-base batean biltzea eta horien berri herri aginteei eta eragile pribatuei ematea. Horretarako, Euskal Kulturaren Aurkibidea eguneratu eta elikatu egingo da, “Euskara Azpiegitura publiko eta pribatuen datu-basea” izango dena, ondoren euskadi.net/euskara web gunean kontsultagarri jartzeko.

7) SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

Proiektu honen helburuak honakoak dira:
- Nazioartean soziolinguistikari buruz argitaratu diren eskuliburu kopuru baten bilketa-lana egitea
- Eskuliburu horiek aztertu eta beren ezaugarri nagusiak ateratzea
- Euskarazko soziolinguistika eskuliburuak izan behar dituen ezaugarri nagusiak proposatzea eta eskuliburua gauzatzea

14. EUSKARAZKO ZIURTAGIRIAK EUROPAKO MARKOAN JASOTAKO MAILEI EGOKITZEA.

Eusko Jaurlaritzaren Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearen agindua betez, 2008an zehar euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko egin ziren lanei jarraipena eman zaie. Izan ere, 64/2008ko Dekretuak bere Azken Xedapenetan ezartzen du, Hezkuntza Sailak kudeatzen dituen gainerako euskara egiaztagiriak (Irakasleen 1. eta 2. Hizkuntza Eskakizunak, Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako tituluak eta HLEA) sei hilabeteko epean baliokidetu eta egokitu egin behar direla. Horrela, otsailaren 24an onartu zen 48/2009 Dekretuak xedapen hau bete zuen.

Halaber, 64/2008 Dekretuak aurreikusten duen Baliokidetzen Jarraipen Batzorde berria sortu da HPSko, Hezkuntza, Herrizaingo, Osasun eta Justizia Sailetako, IVAPeko eta HABEko arduradunekin.

Baliokidetzen Jarraipen Batzordeak erakunde hauetako teknikariez osatutako lantaldea sortzeko erabakia hartu du, besteak beste, euskara-titulu eta ziurtagirien erregistro bateratua garatu dezan, eta titulu eta ziurtagiriak eskuratzeko proben inguruko jarraipena egin dezan.

*SOCIALES+ EUSKARA 2.0 EN LA PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA.*

*Éstos son los objetivos del estudio: hacer una descripción detallada de las herramientas que utilizan las redes sociales, conocer, analizar y explicar los hábitos de uso y navegación de los contenidos en euskera de Internet, y precisar la voluntad, necesidades y pautas de trabajo futuras de los usuarios en general y de los usuarios euskaldunes en particular.*

*6) ALIMENTAR Y ACTUALIZAR LA BASE DE DATOS DE LAS INFRAESTRUCTURAS DEL EUSKERA*

*Éstos son los objetivos: clasificar detalladamente las entidades y asociaciones consideradas infraestructuras públicas y privadas del euskera, reunirlas en una base de datos y notificarlo a las autoridades públicas y agentes privados. Para ello se actualizará y sustentará la Guía de la Cultura Vasca, para que posteriormente se pueda consultar en la web www.euskadi.net/euskara lo que será “La base de datos de la Infraestructura pública y privada del Euskera”.*

*7) MANUAL DE SOCIOLINGÜÍSTICA*

*Los objetivos son los siguientes:*
- *Recopilar la diferentes manuales de sociolingüística existentes a nivel internacional*
- *Analizarlos y extraer las características principales de los mismos*
- *Proponer las características principales de un manual de sociolingüística del euskera y realizarlo.*

*14. ADAPTAR LAS CERTIFICACIONES DE EUSKERA A LOS NIVELES DEL MARCO EUROPEO.*

*En cumplimiento del mandato de la Comisión Delegada de Planificación y Asuntos Económicos, se ha continuado con los trabajos iniciados en 2008 en torno a la convalidación de las distintas certificaciones de euskara y su adaptación a los niveles presvistos en el Marco Común de Referencia Europea. De hecho, el propio Decreto 64/2008 en sus Disposiciones Finales establece un plazo de seis meses para añadir a la tabla de equivalencias las certificaciones emitidas por el Departamento de Educación: los perfiles 1 y 2 del profesorado, los títulos expedidos por las escuelas oficiales de idiomas, y el llamado HLEA. Así, el Decreto 48/2009 aprobado el 24 de febrero cumplió esta disposición.*

*También se ha creado la nueva Comisión de Seguimiento de Convalidaciones prevista en el Decreto 64/2008, integrada por los responsables de la VPL, los Departamentos de Educación, Interior, Sanidad y Justicia, así como los organismos IVAP y HABE.*

*Por decisión de la Comisión de Seguimiento de Convalidaciones, se ha creado un grupo de trabajo formado por técnicos de estas instituciones a fin de que, entre otros cometidos, desarrolle el registro unificado de títulos y certificados de euskera, y realice el seguimiento de las pruebas destinadas a la obtención de los títulos y certificados.*

| **KOSTU / *COSTE*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA *IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Langile Gastuak<br>*1 - Gastos de Personal* | 2.489 | 96% |
| Funtzionamendu Gastuak<br>*2 - Gastos de funcionamiento* | 2.485 | 78% |
| Gastu Arruntetarako Transf. eta Dirulaguntzak<br>*4 - Transf. y subv. para gastos corrientes* | 47.688 | 99% |
| Inbertsio Errealak<br>*6 - Inversiones reales* | 848 | 69% |
| Kapital Eragiketetako Transf. eta Dirulaguntzak<br>*7 - Transf. y subv. Con destino a operaciones de capital* | 578 | 95% |

| **SARRERAK / *INGRESOS*** | | **AURREKONTU GAIN %a** |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK / *CAPITULOS*** | **ZENBATEKOA *IMPORTE*** | ***% SOBRE PRESUPUESTO*** |
| | (Milaka Euroak) *(Miles de Euros)* | |
| Tasak, Salneurriak eta Zuzb. Publikoko B. Batzuk<br>*3 - Tasas, precios públ y otros ingresos derecho Público* | 9 | -- |